

PRENTSA OHARRA

SARS-CoV-2 azkar eta modu seguruan hautemateko kit genetiko berria

- *Tekniker eta Gaiker teknologia zentroak COVID-19 gaixotasuna sortzen duen SARS-CoV-2 hautemateko PCR proben alternatiba izan daitekeen kit ultrasentikor eta azkar bat garatzen ari dira.*
- *Sistema honek test gehiago, denbora gutxiagoan, eta espezializatutako laborategi bateko instalazioetara jo beharrik gabe egiteko aukera emango du.*

[Eibar, 2020ko ekainaren 17a] – PCR teknika Espainian SARS-CoV-2 birusa hautemateko gehien erabilitako diagnostikorako modua izaten ari da. Teknika honek, diagnostikatzeko ziurtatutako fidagarritasuna duen bakarrak, laborategiko ekipamendu sofistikatua eta langile espezializatuak behar ditu birusa hautemateko prozesu guztia aurrera eramateko: material genetikoa ateratzetik anplifikatutako puska genetikoaren irakurketa optikoa egin arte. Gainera, froga osatzeko eta emaitza diagnostikoak lortzeko lau eta sei ordu artean behar dira.

Proba diagnostiko honen konplexutasuna murrizteko asmoz, **Tekniker** eta **Gaiker** euskal teknologia zentroak, Basque Research and Technology Alliance-ko (BRTA) kide direnak, kit genetiko ultrasentikor baten garapenean kolaboratzen ari dira, azkarragoa eta ekonomikoagoa, PCRn alternatiba izan daitekeena, laborategiko ekipamendu espezializatua behar ez duena.

Garatze fasean dagoen kit honek LAMP (LoopAMPlification) bezala ezagututako anplifikazio isotermako sistema alternatibo bat dauka. Honen ezaugarri nagusia da erreakzioa tenperatura egonkorrean ematen dela, ez duela termozikladorerik edo maila altuko langilerik behar, modu horretan birusa osasun instalazio ezberdinetan diagnostikatzeko erraztuz eta ospitaletako analisiak deszentralizatuz. Kita hautemate elektrokimikoko teknologia batek osatzen du, hautemate oso altuko sentsibilitateak lortzeko aukera ematen duena eta gailua sartzea errazten duena.

Zentzu honetan, kit hau garatzeak laborategiak ez diren lekuetan erabiltzeko aukera emango du, lagina hartu den tokitik gertuago, egun egiten direnak baino lagin klinikoan gaineko entsegu gehiago egiteko aukera emanez. Gainera, anplifikazio sistema honen diseinuak hautemateko efizientzia handia ematen dio, eta horrek entsegu denbora murriztea dakar.

Proba Osakidetzako laborategien baloraziotik pasako da, osasun sistemako eragile ezberdinek erabiltzeko aukera izateko.

Koronabirusa hautemateko teknologia

Teknikerrek eskarmentu handia du mikrofluido osagarriak dituen hautemate elektrokimikoa sartzan osasun sektorearen diagnostikoa ezartzeko, eta testaren transdukzio elektrokimikoko sistemaren diseinuaz arduratzen da. Bestalde, Gaikerrek, ekimenaren koordinatzailea izateaz gain, probaren alderdi biokimikoa lan egiten du.

Bi teknologia zentroek proiektu ezberdinetan kolaboratu dute azken lau urteetan, mikroorganismoak hautemateko teknologia ezartzen ezagutza zabala sortuz. Zehazki, Teknikerrek koordinatutako hiru proiektu, Elkartek, Micro4FAB, μ 4F eta μ 4indust, izan dira bi zentroek legionella eta listeria bakteriak zein aspergillus onddoa hautemateko sentsoreak garatzeko lan egin duten markoak.

Azken urte hauetan LAMP anplifikazio isotermoaren eta transdukzio elektrokimikoaren bidez patogeno ezberdinak hautematen sortutako ezagutzari esker, SARS-CoV-2 birusa orubete baino gutxiagoan hautemateko ari dira lanean.

Gaikerri buruz

Gaiker Ikerketan eta enpresei Zerbitzu Teknologiko eta Berritzaileak ematen lan egiten duen teknologia zentroa da. 1985ean sortu zenetik, garapen teknologikoa eta enpresaritza ehunaren lehiakortasuna garatzen laguntzen du, bere ezagutza eremuen bidez: Bioteknologia eta Compositeak eta Polimero Funtzional Jasangarriak. Gaiker Basque Research and Technology Alliance-eko (BRTA) kide da.

Teknikerri buruz

Teknikerrek 40 urte inguruko esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen Ingeniaritzan, Produktu-ingeniaritzan eta IKTetan), eta horrek abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance-eko (BRTA) kide da.

Informazio gehiago:

GUK ▶ Javier Urtasun
urtasun@guk.es | Tel. 637 273 728